



**MIRAMAR JAUREGIA ETA PARKEA  
A MAILA****MIRAKONTXA PASEALEKUA 48**

**Egilea eta data: Selden Wornum, 1889**

**Deskribapena**

Eraikin nabarmena da badiaren ikuspegian, duen kokaleku apartagatik. Lorategi bat dut itsasorantz doan maldan. Lehen San Sebastian monasterioak hartutako lurretan eraiki zuten. Proiektuaren arduraduna Selden Wornum arkitekto ingelesa da. Obrak 1889an hasi zituzten, Jose de Goicoak zuzenduta, eta 1893an amaitu. Eraikina XVII. mendearen hasiera aldeko Ingalaterrako landetxeen motakoa da (horiek Ana erreginaren estiloa deitutakoaren barruan sartzen dira eta nabarmen gotikoak dira). Wornumek, ildo horretatik, garai hartako ohiko elementu batzuk gaineratu zituen; adibidez: eraikina tartetan zatitzea, bakoitza inklinazio handiko estalkiez; gorantz doazen fabrikako tximiniak; lorategiaren mailako begiratokiak; nabarmendutako eraikuntza-elementuak (hala nola, zokaloak, eskantzuak, azpadurak, mainelak eta harlanduzko arku eliptikoak); eta estalkipeko erremateak eta hormapikoak, zurezko bilbaduraz. Eraikin nagusiak antolamendu simetrikoa du. Hari, galeria baten bidez, bigarren mailako beste gorputz bat atxikitzen zaio, sukaldeetarako eta erantsitako geletarako erabilerak dituena. Behe oinean harrerako piezak zeuden, oin nagusian errege familiaren gelak eta bigarrenean mirabeenak. Parkea Ducasse lorezain frantsesaren lana da. Hura jadanik ezaguna zen, Alderdi Ederren eta Gipuzkoa plazan esku hartu baitzuen.

**Babes erregimena**

- \* Erregimen orokorra:
  - Plan Berezi honen A babes mailan sartzearekin loturikoa.
- \* Berriazko erregimena:
  - Monumentu historiko-artistiko nazional deklaratu izanaren ondoriozkoa –265/1984 Dekretua (132. EHAAn, 1984-8-4koan, argitaratua)– eta "Santiago bidea" multzo monumentalean sartu izanaren ondoriozkoa (halakotzat deklaratu zuten urtarrilaren 10eko 2/2012 Dekretuaren bidez).
- Eragindako ingurunea: adierazitako dekretuak mugatutakoa. Erantsita doan grafikoa jasotakoa mugaketa horren hurbilketa bat da eta, horrenbestez, gutxi gorabeherakoa da.